



“Master Cup-eko finalean gutxi entregatzen eta pilota astintzen ahaleginduko naiz”

Ainhoa Ruiz de Infante

Pilotaria • 19

Euskal artzain txakurra galzorian dagoela ikusita, EATA elkarteak alarma botoia sakatu du

Durangaldea | Jone Atxotegi durangarra euskal artzain txakurra babesteko EATA elkartean dabil, eskualdeko beste hainbat kidegaz batera. Arazoa "serioa" dela dio Atxotegijk • 2



AHTaren obrak hasteko lehenengo pausoak Atxondon

12 bat urtean Atxondon AHTaren lanak geldituta egon eta gero, dagoeneko lanak hasi dituztela salatu du Atxondoko AHTrik Ez plataformak aste honetan. AHTaren inguruko kexak aspaldikoak diren arren, orain berriro azaleratu dira eta ANBOTO bizilagun kaltetu batez izan da. **10. orrialdea**



Hiru emakumek eraso sexista jasan dutela salatu dute Zaldibarren

Zaldibar | Zaldibarko Dominika Talde Feministak salatu duenez, tren geltokian zeuden hiru emakumek gizon biren eraso "fisiko eta berbazkoak" jasan zituzten zapatu gauean. **10. orrialdea**

C E R A M I C A S
MACOBER



ERAIKUNTZAKO MATERIALA ZERAMIKA ETA GRESA

Eitua industr., 65 BERRIZ - Tel.: 946 827 890 - www.macober.com



Jone Atxotegi Eizagirre
Euskal Artzain
Txakurraren Adiskideak
elkarteko kidea
Durango

“Kontua serioa da: euskal artzain txakurra galzorian dago”

Nazio Batuen Erakundeak espezie bat salbu egoteko markatzen duen gutxieneko kopuruaren azpitik dago euskal artzain txakurra. Artzainen ogibidearen gainbeherak eta bestelako txakurrekiko gustuek ataka estu batean ipini dute Euskal Herriko berezko txakur arrazetariko bat, Durangaldean ere oraindino presente dagoena. Euskal Artzain Txakurraren Adiskideak elkarteak txakurra babestu eta zabaltzeko lanak egiten ditu.

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

"Bai, bai, halantxik da. Kontu serioa da. Euskal artzain txakurra galzorian dago". Aho bizzirik barik berba egiten duena Jone Atxotegi Eizagirre da, Euskal Artzain Txakurraren Adiskideak (EATA) elkarteko kideetariko bat. Durangarra da sortzez, nahiz eta Abadiñon bizi den gaur egun. "Herritar askok ez dakite hau. Horregatik, noizbait informazio eske datozenean eta hau esaten diegunean, aho-zabalik geratzen dira", adierazi du.

Alarmarako botoia EATA elkarteak sakatu du, eta FAO erakundearen irizpideak mahaigaineratu ditu horretarako. Nazio Batuen Erakundearen elikadura, nekazaritza eta abeltzaintza fundazioa da FAO. Eta horrek dioenaren arabera, espezie bat galzorian dago baldin eta

“

**Artzaintzarako
bakarrik ez, etxean
izateko txakur
modura aldarrikatzen
dugu euskal artzain
txakurra”**

espezie horretan kumeak izateko sasoiak dagoen eme kopurua 1.000 aletik beherakoa bada. Eta hor kokatzen da, gaur gaurkoz, euskal artzain txakurraren egoera erakusten duen argazkia: ugaltzeko gai diren 1.000 txakur eme baino gutxiago daude kontabilizatuta.

Euskal artzain txakurra aldaera desberdin bi ditu: *Gorbeiakoa* eta *Iletsua*. Eusko Jaurlaritzaren erregistroen arabera, baina, arraza bakarra da, eta erregistroetan ez da aldaera bakoitza bereizten. "Albaitariak, normalean, txakurren erregistroa egiten duenean, txipa ipintzen duenean, ez ditu aldaerak islatzen. Txakurra aldaera batekoa ala bestekoa izan, euskal artzain txakur lez erregistratzen dira", dio Atxotegik. Horrek, beraz, aldaera biak zaku berean sartzea dakar eta are eta gehiago korapilatzen du espeziearen ale bakoitzeko kopuruak zehaztea. Beraz, erregistroetan ageri diren zenbakiek Gorbeiakoren eta Iletsuaren arteko batuketa agertzen dute. "Aldaera batekoak zein bestekoak izan, biak daude galzorian", dio Atxotegik. "Euskal artzain txakurra urteak daramatza galzorian", gaineratu du.

Erregistro zehatzik ez

Euskal artzain txakurra zenbat diren zehazteko orduan, gauzak ez daude argi. Ezinezkoa da kopuru finko bat ezartzea. Eta hiru arrazoi nagusi daude erregistroak orientatiboak eta zehaztasun bakoak direla ondorioztatzeko. Bat: badira aldean txipa ez duten txakurra, albaitariarenera eramaten ez direnak eta kontrolatu barik daudenak. "Hor kokatu litezke baserrietan egon dai-

tezkeen kumealdietako batzuk. Ez dira beti erregistratzen", argitu du. Ondorioz, hor zehar dabilen hainbat ale ikusezinak dira erregistroen begietan. Bi: bajak ez dira jakinarazten. Normalean, oraindino kumea dela eramaten du jabeak txakurra albaitariarenera. "Baina txakurra hiltzean, ez da jakinarazten. Eta bajak ez kontabilizatzeak gorabeheraz josten ditu erregistroak", dio Atxotegik. Eta, hiru: txakur espezieen arteko gurutzaketak. Atxotegik dioenez, "askotan gertatzen dira gurutzaketak beste arraza batzuetako espezieekin edo baita euskal artzain txakurraren aldaera bien artean ere. Horrek are eta gehiago zailtzen du aldaera mota bakoitzaren berezko-tasuna".

Border Collie txakurra

EATA elkarteak adierazten duenez, gaur egun border collie arraza da euskal artzain txakurraren eragile handienetariko bat. Irailean Axpen jokaturako Euskal Herriko Artzain Txakurren Txapelketak utzitakoa da horren erakusle. Aldudeko (Nafarroa Beherea) Martzel Hualdek irabazi zuen lehenengo saria, *Etxe border collie* gaz. Hirugarren saria *Gaua* txakurra eraman zuen, Donamartiri herriko (Nafarroa Beherea) Gilles Etxegoien artzainaren border collieak. "Diotenez, aginduak betetzera, border collieak kasu gehiago egiten dio entzumenari. Gureak artzainaren presentziari egiten dio kasu gehiago", dio Atxotegik. "Guk, dena dela, artzaintzarako bakarrik ez, etxean izateko txakur modura ere aldarrikatzen dugu euskal artzain txakurra. Leiala, lagunkoia eta maitagarria da", gaineratu du.

Elkarte bi

Beste batzuk ere badauden arren, bi dira euskal artzain txakurra babesten duten elkarte nagusiak: EATE eta EATA. Izen antzekoak dituztenez, argitzea komeni da: EATE Euskal Artzain Txakurra Elkarte da. 1994an sortu zen, eta elkarte bien artean beteteranoena da. Bigarrena, EATA, 2016an sortu

“

**Artzain txakurraren
erregistroetan ez dago
datu zehatzik: jaiotzak
eta heriotzak ez dira
beti kontabilizatzen**

-

zen eta Euskal Artzain Txakurraren Adiskideak Elkarte du izen osoa. Azken honetako kidea da Atxotegi, eta Durangaldeko beste hainbat kide ere badaude. "Hasiberriak gara, baina ari gara antolatzen. Asmoa da Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko elkarteekin ere hartu-eman izatea", esan du. Euskal artzain txakurra zaintzen eta zabaltzen jarraituko dute.

2018an, euskal artzain txakur baino border collie gehiago erregistratu ziren Durangaldeko herrietan: 10 txakur gehiago

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Eusko Jaurlaritzaren REGIA erakundeak du txakurren erregistroa egiteko ardura, eta horren lehenengo abiapuntua, normalean, albatariarenean hasten da. Txakur jai berriari txipa ipintzera joan ohi da jabea bertara, eta halaxe kontabilizatzen dira gero txakurrak erregistroan.

Jarraian erakusten diren datuak EATA elkarteak ipini dizkio eskurgarri ANBOTOri, REGIA erakundearen datu basea oinarri hartuta. Irakurleak eskualdeko herriren baten falta igartzen badu, horrek esan gura du iaz ez zela euskal artzain txakurrik edo border collierik erregistratu herri horretan.

Datu orientagarriak dira, erregistroak ez direlako erabat zehatzak. Edozelan ere, joera orokor bat markatzen dute: orain arte, 2008tik 2018ra bitarteko erregistroan euskal artzain txakurra izan bada ere nagusi, iaz egoera irauli eta border collie gehiago erregistratu ziren eskualdean. Kontuan hartu behar den beste datu bat da euskal artzain txakurraren estatistikan aldaera biak, *Illetsua* eta *Gorbeiakoa*, batera ageri direla.

BORDER COLLIE TXAKURRA (2018an Durangaldean erregistratutako txakur kopuruak, herrika)

- Abadiño: 6
- Atxondo: 4
- Berriz: 3
- Durango: 5
- Elorrio: 6
- Iurreta: 2
- Mallabia: 4
- Mañaria: 1
- Otxandio: 1
- Zaldibar: 1
- Zornotza: 12
- GUZTIRA: 45

EUSKAL ARTZAIN TXAKURRA (2018an Durangaldean erregistratutako txakur kopuruak, herrika)

- Abadiño: 5
- Atxondo: 1
- Berriz: 3
- Durango: 7
- Elorrio: 6
- Iurreta: 2
- Izurtza: 1
- Mallabia: 3
- Otxandio: 1
- Zornotza: 6
- GUZTIRA: 35



EATA ELKARTEA



EATA ELKARTEA

Euskal artzain txakurraren aldaera biak, 'Gorbeiakoa' (ezkerrean) eta 'Illetsua' (eskuman).



Border Collie txakurraren ale bat.

Elkarteen eta ikerlarien lana, tokiko txakurra babestu eta zabaldu dadin laguntzeko

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Txakurrak maskota lez darabiltzaten herritarren gustu aldaketak, modak, edo urrutiko txakurrak etxekotzeko erraztasunak izan dira, EATA elkartearen arabera, galera hau ekarri duten beste faktoreetarikoz batzuk.

Elkartek, baina, argi du euskal artzain txakurra babesten eta zabaltzen segituko duela. Hainbat dira horretarako antolatzen dituen ekintzak. Erakusketak antolatzen dituzte, azoketan informazio postuak ipintzen dituzte, euskararen aldeko jaietara joaten dira, edo elkartearen kideen arteko txangoak eta topaketak egiten dituzte.

DNA ikerketa

EHUko ikerlariekin batera, txakur arraza babesteko ikerketetan laguntzen du EATAk. Hain zuzen ere, Eus-

kal Herriko Unibertsitateko ikerlari talde bat euskal artzain txakurraren genetika ari da aztertzen. "Lehen, txakurren ugalketak familien artean egiten ziren. Bazen endogamia moduko bat. Horrek genetikaren ahultze bat ekarri du, DNA aberastasunaren galera bat. Ikerketa honek artzain txakurra zelan dagoen aztertzen du, gerora neurriak hartzeko. Ugalketa prozesu bat hasi baino lehen, odol berekoak ez direla ziurtatuko genuke, eta etorri daitzekeen gaixotasunei aurre hartzen lagunduko liguke", dio Atxotegik.

EATA Elkarteak www.eataelkaratea.org web orria dauka. Interesa duen edozein herritarrek jo dezake eurengana. Bertan, estatistikak, askotariko informazioa eta antolatzen dituzten ekitaldien berri ematen dute. Facebook orria ere badute.



EATA ELKARTEA

Korrikaren azken edizioan, EATA elkartearen kideek Oñati inguruan egin zuten korrika, txakur eta guzti.



EATA ELKARTEA

Iaz, EATA elkartearen hainbat kide Abadiño San Blas azokan batu ziren.

Sindikaturik gehienek eta patronalak aurreakordioa lortuta, Bizkaiko metalgintzako greba bertan behera gelditu da

LAB, CCOO eta UGT sindikatuek Bizkaiko metalgintzaren hitzarmena eguneratzeko aurreakordioa lortu dute FVEM patronalagaz. ELA testua aztertzen ari da eta ez du aurreakordioa onartzea ala atzera botatzea baztertzen



Irailaren amaieran hainbat mobilizazio egin zituzten eskualdeko metalgintzako langileek.

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Urak baretzen hasita daude Bizkaiko metalgintzaren hitzarmena eguneratzeko tirabiretan. Martitzenean, negoziatio batzar bi egin eta gero, metalgintzako sindikatuen gehiengoak aurreakordioa sinatu zuen: LABek, CCOOk eta UGTk adostasuna lortu zuten Bizkaiko FVEM patronalagaz. Aurreakordioa gerora akordioa izatera pasatuko balitz, Bizkaiko metalgintzaren sektoreak hitzarmen berria izango luke 2021era arte. Eta ez hori bakarrik; izaera orokorreko hitzarmena litzateke, enpresa guztietara hedatuko dena, orain arteko hitzarmen partziala deseginda.

Aurreakordioak langileen eskarietako asko biltzen ditu: soldatak handituko lirerateke, urterik urte, KPI indizeari %2 (2018ko soldatetan), %1,75 (2019an), eta %1,50 (2020an eta 2021ean) igota. Emakumeen eta gizonen berdintasunean sakontzeko protokoloak ere lantzerako konprometitzen da patronala. Eta sindikatuen eskari nagusietarikoa izan dena, subrogazio klausularen ezarpena ere, aurreikusten du aurreakordioak. Alde bien hurbilketaren ondoren, grebak bertan behera uztea erabaki dute sindikatuek.

ELA, aztertze fasean

Edizio hau ixterako (eguztzen eguerdia), ELA sindikatuak guztiz argitu barik zuen bere erabakia. Martitzenean aurreakordioa sinatu ez izanak ez du esan gura sinatuko ez duenik. Baina, aldi berean, ez du esan gura baztertzeko aukerarik ez dagoenik. "Martitzenean jaso genuen txostena. Testua irakurri eta hausnartu behar dugu, gero txostena babestu ala ez erabakitzeko", diote.

Hiru langile intoxikatu dira Smurfit enpresan izan den lan istripuan

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretako Smurfit enpresan izandako lan istripuaren ondorioz, hiru langile intoxikatu ziren martitzenean. LAB sindikatuak azaldu duenez, azido sulfamikoagaz kutsatu ziren, begietan eta azalean narritadura eragiten duen azido batez; begien kasuan, narritadura larria izan daiteke. Martitzen goizaldean izan zen istripua, eta langileetarikoa batek konortea galdu zuen.

LABek dioenez, babes maskara, begietarako babes pantaila, arropa egokia eta eskularruak beharrezkoak dira azido horregaz lan eginez gero, eta beste zenbait segurtasun neurri bermatu behar dira. Ikerketa egin dadila eta enpresak bere ardura hartu dezala exijitu du LABek.

Herritarrei zein pazienteei zuzendutako Mobidurango zerbitzu berriak aktibitate fisikoa egitea aholkatu du

Landakoko anbulatorioan, Kurutziazako nagusien egoitzan eta San Fausto eta Aramotz auzoetan emango dute zerbitzua

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Osasun zentroan, "inaktibitate fisikoa izan dezaketen pazienteak identifikatu, eta haien esku aktibitate fisikoari buruzko aholkularitza zerbitzua ipiniko dugu", azaldu zuen Jaione Aranak, Mobidurango zerbitzuaren orientatzaileak martitzeneko aurkezpenean. Dena dela, zerbitzua ez da pazienteentzat bakarrik. Herritar guztiek izango dute erabiltzeko aukera.

Marian Bilbatua EH Bilduko zinegotziak azaldu zuen aktibitate fisikoa garrantzitsua dela, "bizikaltatea hobetzea" dakarrelako, eta gaineratu du "sozializaziorako" tresna ere badela. Julian Rios Herriaren Eskubidea taldeko zinegotziak esan zuenez, aktibitate fisikoa lehia probetakoa

baino gehiago da. "Bidegorritik paseatzea, umeekin ibilaldiak egitea, kirola partekatzea... hori ere bada aktibitate fisikoa".

Abenduaren 3tik aurrera hasiko dira zerbitzua eskaintzen. Landakoko Osasun Zentroan

martitzenetan (10:00 - 13:00) eta eguenetan (14:00 - 17:00) emango dute. Kurutziazako nagusien zentroan, San Fausto auzoan (udalaren lokalean) eta Aramotz auzoan ere (Herria elkartearen) emango dute. Informazio gehia

go mobidurango@durango.eus helbidean eta 607372668 telefonoan eskuratu daiteke. Aurreko lege-gintzaldian hasi ziren Mobidurango zerbitzua martxan ipintzeko lehenengo pausoak, Osasun Sailagaz batera.



Udal ordezkariak, Osasun Saileko teknikariek eta Landakoko Osasun Zentroko arduradunek martitzenean aurkeztu zuten zerbitzua.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2019ko azaroaren 29a
18. urtea - 786. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabari.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretzi Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala, Igor Galarza Intxausti.
Maketazioa: Bea Sierrasesumaga Guezuraga, Nerea Azpiazu Beaskoetxea eta Ainhoa Iraola Mazorriaga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

"Bilbon zaila da euskaraz bizitzea eta ez digute lan hori baterre errazten"

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Bilboko iazko jaietan, txosnak desmuntatzen zebilela, hango udaltzain bategaz eztabaida izan zuen Durangon bizi den Arkaitz Zarraga santutxuarrak. Berari euskaraz zuzentzeko eskatu zion udaltzainari, administrazioarekiko hizkuntza aukeratzeko eskubidea berea delako, baina udaltzainak ez zion kasurik egin, eta, gainera, salaketa ipini zion errespetu falta leporatu-

ta eta iraindu egin zuela esanda. Gertaera horri dagokion epaiketa abenduaren 12an izango da, Bilboko epaitegian.

Harrezkero, hainbat eragileren elkartasuna jaso du. Hain zuzen ere, epaiketa egunean, 09:30ean, Euskal Herrian Euskarazek eta Hau Pittu Hau konpartsak elkarretaratatza deitu dute epaitegiaren aurrean Zarragari elkartasuna adierazteko. Hainbat norbanako-

ren esker ona ere jaso duela dio Zarragak. "Jendeak eskertuta berba egin dit, esanez eurek beharbada ez zutela horrela jokatu. Baina neuk ere ez dut beti horrela jokatu. Batzuetan errudun sentiarazten gaituzte euskararen alde sutsuago ez aritzeagatik. Bilbon euskaraz bizitzea oso zaila da eta ez digute lana baterre errazten. Gertaera honek euskalgintza apur bat astintzeko balio badu, gaitzerdi", adierazi du.



Abenduaren 12an, epaiketa egunean, elkarretaratza deitu dute Arkaitz Zarragari elkartasuna adierazteko.

Durangotik Madrilgo teiltura joango da galdeketaren pilota

Prozedura Durangon hasi eta gero, ministroen kontseiluak erabakiko du geltokiaren gaineko galdeketa baimendu ala ez

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Pilotak Madrilgo teiltura egingo du salto, ministroen kontseilua- ren teiltura, hain zuzen ere. Tren geltokiaren gaineko galdeketa Durangon aktibatu eta gero, prozedurak han izango du segida, eta han erabakiko dute ea galdeketari

argi berdea ematen dioten ala argi gorria. Kontseiluak hiru hilabete- teko epea izango du kale ala bale egiteko.

Baiezkoak irtengo balu, pilota Durangora itzuli eta galdeketari buruzko prozedurak bertan izango luke segida.



Tren geltoki zaharraren lursailek etorkizuneko erabakien zain segitzen dute. LEIÑOR ELORRIAGA

Azaroaren 28tik aurrera

Berria
Alcampo




Doan
bezeroentzat



Gasolindegia



Etkez etxeko
zerbitzua



Montorreta industrialdea, 1 ST3 errepidea.

DURANGO

alcampo.es




Alcampo

eta aldatu bizitza

Zornotzan onartu dituzten aurrekontuek herritarren parte hartzeagaz egindako eskarietako batzuk islatzen dituzte

30.100.000 euro baino gehiago izango dituzte, iaz baino %4,19 gehiago. Helburu nagusiak "gizarte kohesioa, enplegua eta ekonomiaren garapena eta jasangarritasuna" dira, gobernu taldearen esanetan. EH Bilduk eta Elkarrekin Podemosek ez dituzte aurrekontuak babestu. "Ez dira guk gura genituzkeen aurrekontuak" esan du EH Bilduko Ander Uriartek



Karmen kalean dagoen pasabide batean ipiniko dute igogailua.

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako Udalak 2020an garatuko dituen proiektu nagusietariko batzuk Ixer kalearen inguruko urbanizazio lanak, Legarrebi auzokoak, Karmen kalean ipintzeak diren igogailua eta herriko kirol instalazioetan egingo diren hobekuntzak dira. Inbertsioei dagokien atala %8 handitu dute.

Hiritartasunaren arloak hartuko du aurrekontuaren zatirik handiena: %48,02. Bertan, ekintza sozialerako, kirolerako, euskara politikarako eta enpleguaren eta ekonomiaren promozioari buruzko partidak egongo dira. Lurraldeari lotutako eremuak beste zati inportante bat izango du: aurrekontu osoaren %38,49. Urbanizazio lanak horren barruan egongo dira.

Herritarren eskariak

Joan zen barikuko osoko bilkura amaitutakoan egindako adierazpenetan, Andoni Agirrebeitia alkateak aipamen berezia egin zion herritarrek aurrekontuen diseinuan izandako parte-hartzeari. Esan zuenez, horietariko batzuk "islatuta" gelditu dira. Hain zuzen, hauek izango dira zornotzarren eskarietatik irteerako proiektuetariko batzuk: Karmen kalean irisgarritasuna hobetzeko igogailua ipintzea, Konbenio kaleko lanak, Dudagoitia auzora doan urhornidura hobetzea eta Etxanon aldagelak eta komun publikoak ipintzea.

"Ez dira gure aurrekontuak"

EH Bilduko Ander Uriartek esan duenez, ez dira EH Bilduk "gura litzuzkeen aurrekontuak", eta koalizioak aurrekontuen aurka egin zuen. "Guk egindako proposamenetariko batzuk onartu dira, beste batzuk aztertuko direla esan digute, eta beste batzuk ez dira ikusi ere egin", azaldu zuen Uriartek. Elkarrekin Podemoseko Alba Gutierrez zinegotziak ere jarrera bera hartu zuen.

Gazteei begirako Zapatuero programa zapatuan hasiko da

MALLABIA • J.D.

Mallabiko Udalak gazteei begira antolatzen duen Zapatuero programa zapatu honetan hasiko da, Kontzejuzarrean. Herriko aisialdi programan sakontzeko helburuagaz, 16 urtera arteko mallabitarrei

bideratutako ekimenak antolatuko dituzte astebururo. Ekimen batzuk Mallabian bertan gauzatuko dituzte: jolas kooperatiboak, tailerrak, eskulanak, dantza, ginkanak eta abar. Beste asteburu batzuetan, herrigunetik kanporako irteerak egingo dituzte: bizikleta ibilaldiak, txangoak... Adinaren arabera, gazteak talde bitan banatuta egongo dira: 5etik 11 urtera artekoak eta 11tik 16 urtera artekoak.



Jon Munitxa abadiñarra bigarren sailkatu zen.

Eguraldia ez zuen Garaiko ziklo-kros proba hondatu

Paula Suarez eta Gorka Izagirre izan ziren nagusi. Garain egindako proban, Bizkaiko txapeldunak erabaki ziren

GARAI • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Astana taldeko Gorka Izagirre txirrindulariak lortu zuen garaipena Garaiko ziklo-kros proban. Atzetik aurrerako lasterketa egin zuen, eta azken-aurreko itzulian aurreratu zuen bigarren sailkatutako Jon Munitxa abadiñarra. Hirugarrena Miguel Sanchez izan zen. Emakumezkoetan, Paula Suarezek (Laboral

Kutxa - Euskadi Fundazioa) ez zuen aurkaririk izan eta nagusitasunez irabazi zuen. Bigarrena Anne de Pablo (Mendiz-mendi) izan zen. Hirugarrena, Nerea Isusi. Eguraldia lagun izan ez zuten arren, jendetza batu zen zapatuko ziklo-kros proban. Garaiko Triatloi Taldeak eta udalak elkarlanean antolatu zuten proba, lehenengoz.

ERROA ETA GEROA

DOKUMENTALAREN PROIEKZIOA
+ EGILEEKIN SOLASALDIA

AZAROAK 30, larunbata.

18:30etan ARRIOLA ARETOAN



Sarrera dohainik



Otxandioko 120 erabiltzaile ditu Mainondon dagoen kiroldegi berriak

Orain aste gutxi ipini zuten martxan, zortzi ikastarogaz, eta harrera ona izan du herrian

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Martxan daramatzan aste gutxietan, Otxandioko kiroldegi berriak harrera ona jaso du herritarren partetik. Zortzi ikastaroko kirol eskaintzan 120 otxandiar dabilta, 1.300 biztanleko herrian.

Kirolgune berriaren asmoa 2015etik dator. Orduan, herritar talde bat batzen hasi zen, premiari irtenbidea emateko. Udalaren eta Mainondo Kirol Elkartearen bitartez aurten ipini dute martxan, pilotaleku azpiko espazio bat berrituta.

Gainerako kirol eskaintzari kalterik eragin ez dion egitasmoa dela nabarmendu dute kirol elkarteko kideek; baita ikastaro askotan neskek, mutilak eta adin askotariko jendea batera dabilzala ere.



Yoga ikastaroko taldea.

Txitxiburduntzia eta futbito partiduak etzi Mañarian, Guraso Elkartearen eskutik

Arratsaldean gaztainak erreko dituzte meriendarako



Urteko ekimenik arrakastatsuenetariko bat izaten da Guraso Elkartearen esanetan.

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Umeen arteko futbito partiduak 11:00 inguruan, txitxiburduntzia eguerdian, eta gaztaina errekin merienda arratsaldean. Horixe da Mañariko Guraso Elkarteak plaza eta pilotaleku inguruan domeka

honetarako antolatu duen plana. Urteko ekimenik arrakastatsuenetarikoa izaten dela nabarmendu dute. Iaz 100 bat lagun batu zituen. Batutako dirua urtean zehar askotariko ekimenak egiteko baliatuko dute.

'Erroa eta geroa' dokumentala zapatuan Arriola antzokian

Ibilaldiaren egitarauaren barruan Elorrion egingo duten lehenengo ekimena izango da azaroaren 30ekoa

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

'Hel horri!' lelopean, Elorriok hartuko du hurrengo Ibilaldia, 2020ko maiatzaren 31n. Baina Ibilaldiaren egitarauaren barruan egingo duten lehenengo ekimena asteburu honetan egingo dute. Arriola Antzokian, 18:30ean, *Erroa eta geroa* dokumentala proiektatuko dute. Emakumeak

baserrian historikoki izan duen garrantzia eta gaur egun belaunaldi berriek baserri munduan hartu dituzten bideak aztertzen ditu lan honek. Dokumentalaren ondoren, lana egiten ibili diren emakume pare batek hitzalditxo bat emango dutela jakitera eman du David Cobos Txintxirri Ikastolako zuzendariak.



'Erroa eta geroa' dokumentala eskainiko dute.

24 euro ordaindu beharko dira galdutako txakurrak udaltzain etxetik jasotzeko

Galdutako eta abandonatutako txakurrak jasotzen ditu udalak

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Beste hainbat udalerritan lez, galdutako edo abandonatutako txakurrak jasotzea udalaren eskumena dira Elorrion. Hori arautze aldera, tasa batzuk ezartzea erabaki dute. Esaterako, udaltzainek

galdutako txakur bat jasotzen badute, jabeak 24 euro ordaindu beharko ditu aberea etxerategi eramateko. Bestalde, txakur hori txakurtegira eramaten badute, eguneko 7,5 euro ordaindu beharko direla azaldu dute.

Bizikleten gehiegizko abiadura dela-eta, Izurtzako Udalak abiadura zaintzeko seinaleak ipiniko ditu auzoetan

Udalagaz egindako herri batzarrean, hainbat auzotarrek salatu dute mendi bizikletan dabiltzanak arinegi joaten direla aldats beheara doazenean

IZURTZA • JOSEBA DERTEANO

Izurtzako Udalak Tokiko Agenda 21eko batzarra egin du oraintsu herritarrekin. Batzar hori udaleko asmoen berri emateko zein herritarren ekarpenak jasotzeko erabiltzen dute urtero. Bertan, hainbat herritarrek euren kezka adierazi zuten, mendi bizikletan ibiltzen direnak auzoetatik gehiegizko abiaduran ibiltzen direlako, batez ere aldats beheetan, eta egoera arriskutsuak sortu izan direlako, bai bizilagunekin, bai etxeko aberekin.

Egoeraren aurrean, udalak neurriak hartzeko asmoa du. Auzoetan seinaleztapenak ipiniko dituzte, bidean abereak egon daitezkeela ohartarazteko eta abiadura zaintzeko eskatzeko. "Aurrekontuetan diru atal bat sartuko dugu horretarako", adierazi du Lorea Muñoz alkateak. Auzoetan oinezkoen eta bizikleten arteko bizikidetzak hobetzeko, "kontzientziazio" lana garrantzitsua dela adierazi du Izurtzako alkateak, eta auzotarrentzat "errespeta" eskatu du.



Bitaña auzotik herrigunerako aldatsean beheara bizikletak eta autoak abiadura handian ibiltzen direla dio Zarrabeitiak.

Auzotar baten testigantza

Nerea Zarrabeitia Izurtzako Bitaña auzoko Etxetxu baserrian jaio zen eta Izurtzan egiten du bizimodua. Bere baseritik herrigunera doan bideak aldats beheara datorren beste bide batez egiten du bat herrigunera heldu aurretik, eta ingurune

hori oinezkoentzat arriskutsua izaten dela dio. "Aldats beheara handia dago eta txirrindularirik gehienak abiadura handian bajatzen dira. Ez dute kontuan hartzen abereak, oinezkoek eta umeek bidea gurutzatu dezaketela", azaldu du. Berari gertatutako adibide batzuk ipini

ditu. "Askotan, umeekin etxerako bidean, besoetan hartu behar izan ditut bizikletek jotzeko beldurragatik. Beste batzuetan, etxetik kotxean irteterakoan, nahiz eta hamaika bider begiratu goitik norbait datorren, sustoak eduki izan ditugu, bizikletan arinegi datozelako.

Konturatzen zarenerako, gainean dituzu", gogoratu du.

Pertsonekin ez ezik baserriko aberekin ere arazoak sortzen dira Zarrabeitiaren esanetan. "Auzoko batek bide horretatik gurutzatzen ditu zaldiak eta ardiak, eta aldats beheara datozenak, hain arin etorritak, ez dute astirik gelditzeko. Aurreko batean, txakur bat galduta ibili zen auzotik, eta bizikletadun bat gure etxera etorri zen abisatzeko. Beldurtuta zegoen beste bizikletadun batek jo eta istripua eragin zezakeelako", azaldu du. Bizikleten gehiegizko abiaduraz gainera, autoena ere aipatu du. "Maldan beheara abiadura handia hartzen dute, eta neguan, euriagaz, edo gauetan, arrisku handia dago nahiz eta bide bazterretik joaten garen", dio.

Horiek horrela, begi onez ikusten du udalak seinaleztapenak ipintzeko duen asmoa, baina hausnarketa kolektibo baten beharra azpimarratu du. "Denok ipini behar dugu zentzu apur bat gure aldetik, ezer larria gertatu baino lehenago", eskatu du.

Euskal Herriko

Trikitolari Gazteen

XXVIII. Txapelketa 2019

2019ko abenduaren 1a arratsaldeko 17:30ean

FINALA OLAZAR PILOTALEKUAN

ZALDIBARren

1. IRATI ARCELUS OLANO (LAZKAO) MIRARI PLAZAOLA TORRONTÉGUI (ARRASATE)	4. IANIRE SEGUROLA TOLOSA (HERNANI) ELAIA DIAZ BEROZ (ASTIGARRAGA)
2. ARAITZ ETXANIZ AZPIAZU (AZKOITIA) ENAITZ ALBERDI ALKORTA (AZPEITIA)	5. ANE ETXEZARRETA LASA (OLABERRIA) SARA IRIARTE LASA (BILLABONA)
3. JULEN LABAKA ARANGUREN (ERREZIL) GARAZI LARRAÑAGA ELOLA (AZKOITIA)	6. EIDER GARRO IRAOLA (HERNANI) ARAITZ ELIZALDE MINER (HERNANI)

Zaldibarko
2019
SAN
AN
DRES
jaiak

"Euskararen Kriseilua bertan egonda, gurasook erdaraz berba eginez gero laster batean abisatzen digute haurrek"

Euskararen Kriseilua dinamika martxan da Berrizen. Parte-hartzaile bigaz berba egin du ANBOTOK eta euren esperientziak eta ondorioak kontatu dituzte

BERRIZ • M. ZUAZUBISKAR/I. GALARZA

Euskararen Kriseilua martxan da Berrizen, eta 40 bat familiek erantzun diote udalaren Euskara Zerbitzuak eta Learreta-Markina eskolak elkarlanean abiatutako ekimenari. Ekimenak haurren hizkuntza, euskara, suaren sinbologiagaz jolastuz zaintzea eta umeek hizkuntzaren gaineko arduraren hartzea du helburu.

Azaro hasieran ekin zioten ekimenari, eta Lehen Hezkuntzako lehenengo mailako eta bigarren mailako ikasleek eta euren familiek parte hartu dute. Ekimenak abenduaren 3ra arte iraungo du, Euskararen Nazioarteko Egunera arte. Abenduaren 4an amaiera ekitaldi bat egingo dute, ekimenak iraun duen bitartean familiek hartutako konpromisoekin.

Ekimenean parte hartu duten kide bigaz izan da ANBOTO. Bata Isbene Sanchez da. Euskaldun berria da eta hainbat urte daramatza euskara ikasten. Bestea Iraia Urrejola euskaldun zaharra da.



IRAIA URREJOLA

"Etxean beti jaso izan dut euskara, eta umeon artean euskaraz aritzen ginen. Etxeko txikiek marrazki bizidunak gaztelaniaz ikusten dituzte, adibidez. Euskararen Kriseiluak hori aldatzea izan du helburu gure etxean.

Zaila izan da, ez diedalako umei inposatu gura zein hizkuntzatan berba egin behar duten. Orain kriseilua bertan egonda, gurasook erdaraz eginez gero laster batean abisatzen digute haurrek. Bejondeiela!"



ISBENE SANCHEZ

"Urte asko daramatza euskara ikasten, eta buru-belarri nabil. Seme-alabei beti esaten diet euskaraz berba egiteko, euren ama hizkuntza euskara izatea gura dudalako. Senarrak eta biok euskaraz egiten dugu

haurrekin, baina arazo nagusia da senarragaz gaztelaniaz berba egiten dudala beti. Eta horixe izan da nire helburu nagusia. Zaila da dinamika aurrera eramatea, ohitura asko aldatzen direlako, telebistagaz batez ere".

Durangaldeko azken albisteak jaso gura dituzu?

Batu Anbotoko whatsapp taldera

Bidali ALTA

688 635 041

telefono zenbakira

Izan zaitetz berriemaile ere. Bidali zure argazki eta bideoak



Atxondoko AHTrik Ez plataformak lanak hasi dituztela baieztatu du

"Ofizialki ez dakigu lanak egiten hasi diren", aitortu du Xabier Azkarate Atxondoko alkateak



Atxondo zeharkatuko duen zubiak 1.754 metroko luzera izango du.

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Urte luzez, AHTaren gaiak zeresan handia eman du Atxondon. Proiektua 12 bat urtean geldituta egon eta gero, badirudi hasi direla lanekin. Atxondoko AHTrik Ez plataformako kideek asteon ANBOTOri jakitera eman diotenez, dagoeneko hasi dira lanak egiten Apatamonasterion. "Kapela base-riaren inguruan langileak daude, sasiak kentzen hasi dira, baita beste zenbait lan egiten ere. Hau etorriko denaren hasiera besterik ez da", salatu dute. Xabier Azkarate Atxondoko alkateak esan du lanak noiz eta nondik egiten hasiko ziren idatziz jakinarazteko eskatu ziola

udalak enpresari, eta oraindino ez dutela ezer jaso. "Badakigu Kapela inguruan kamioien mugimendua dagoela, baina ofizialki ez dakigu lanekin hasi diren", aitortu du alkateak.

"Hemendik aurrera, kamioien mugimendua izugarria izango da gure etxe aurrean"

AHTaren inguruko kexak aspaldikoak diren arren, orain berriro azaleratu dira. "Dagoeneko hasi dira gure etxe aurretik kamioiak

pasatzen, eta, hemendik aurrera, mugimendua izugarria izango da. Hau onartezina da eta jasanezina izango da", adierazi dio ANBOTOri kaltetutako bizilagun batek.

Trenaren nondik norakoak

Atxondotik, 1.754 metroko luzera izango duen zubi bat igaroko da, Apatamonasteriotik hain zuzen ere, eta zutaberik altuenak 85 bat metro izango ditu. Maisu etxea dagoen lekuan eraikiko dute zubia. Plataformako kideek jakitera eman dutenez, Atxondoko tartean dauden obra, bide, betelan eta azpiegiturek 100.000 metro karratu inguru hartuko dituzte.

Bizidun elkarteko kideek jaurtiko dute San Andresetako txupina Zaldibarren



ZALDIBAR • A.M.

Zaldibar jaietan murgilduko da beste asteburu batez. San Andres jaiak ospatuko dituzte, eta 2012an jaiotako Bizidun pertsona nagusien elkarteko kideek jaurtiko dute txupina. 19:00etan izango da hasiera ekitaldia. Ondoren, kontzertuak egongo dira, elizan eta gaztetxean. Zapaturako, egun osoko egitaraua antolatu dute, eta domekan Euskal Herriko trikitilari gazteen XXVIII. txapelketa egingo dute Olazar pilotalekuan.

Zapatu gauean gizon bik hiru emakumeri eginiko eraso salatatu dute Zaldibarren

ZALDIBAR • A.M.

Joan den zapatutik domekarako goizaldean gertatutako eraso sexista baten berri eman zuen Zaldibarko Dominika talde feministak eguazten goizean. "Gizon bik hiru emakumeri berbaz eta fisikoki eraso egiteaz gainera, neskek substantzia arraroen eraginak sumatu zituzten", salatu

Erasoa salatze, elkarretaratzera deitu zuten eguen iluntzerako

zuten sare sozialen bitartez. Erasoa salatze, elkarretaratzera deitu zuten eguen iluntzerako. Dominika taldekoek bertan parte hartzeko deia egin zuten, eta trasteren bat eramateko esan zuten, zarata ataratzeko.

Astelehenean ere elkarretaratzea egin zuten Zaldibarren, Indarkeria Matxistaren Aurka Egunaren harira.

Abadiñoako kiroldegiko erabiltzaileek abonua itzultzeko eskatu diote udalari

Urri amaieran eta azaro hasieran aste biko greba egin zuten Bizkaiko hainbat kiroldegitan, tartean Abadiñoan. Erabiltzaileek sinadura bilketa hasi dute eta 172 batu dituzte jada

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Lan hitzarmen "duin" baten alde, Bizkaiko hainbat kiroldegitako langileek greba egin zuten urri amaieran eta azaro hasieran, aste bian. Tartean, Abadiñoako udal kiroldegikoek. Grebaren ondorioz, aste bian ez zuten zerbitzurik eskaini, eta kiroldegia itxita egon zen. Orain, kiroldegiko erabiltzaileak sinadurak batzen hasi dira ordaindutakoa itzuli diezaieten. "Ezin izan ditugu kontratatutako zerbitzuak eta instalazioak erabili; beraz, abonua itzultzeko eskatzen diogu Abadiñoako Udalari", adierazi dute erabiltzaileek. Kiroldegiko 172 erabiltzailek asteon ipini dute kexa udalean.




Hainbat erabiltzailek bultzatuta, sinadura bilketa hasi dute.

atxondo

2019ko abenduak 1

XXIII. ARTISAU ETA NEKAZAL
PRODUKTUEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA



ANBOTO. I.G.

Hareek denporak!

Trenbidea lurperatzeko tunelaren alde biek bat egin zuten eguna

2005eko martxoan, *Durango operazioa* izeneko egitasmoa martxan ipini zuten. 2006ko ekainaren 16an, proiektu horren mugarrietariko bat ipini zuten. Trenbidea lurperatzeko tunelaren alde biak lotu zituzten. Guztira, 1.313,42 metroko tunela egin zuten. Alde batetik, 204 metro hondeatu zituzten Ezkurdi inguruan, eta, bestetik, 1.100 metro Elorrio erreka inguruan.

Baina *Durango operazioa* trenbidea lurperatzea baino gehiago da. Trenak libre utzitako lurretarako proposamena ere bada kar plan honek. Etxe dorreak, galeria komertziala, Zaha Haidid arkitekto ezagunaren erakina... 2019an, baina, lur horietan etxe dorreen proiektua gauzatzea zalantzan dago. Dagoeneko Erabaki plataformak proposatu du galdeketerako galdera. J.G.

Durungaldea asteen

Udalagaz hartu-eman zuzena bideratzeko auzo plataforma sortu gura dute Iurretan

Iurreta | Herritarrek ordezkatzeko dituen plataforma bat sortzeko deia egin dute Yerai Alvarok, Yusenka Sernak eta Oihana Sanchezek. Bizilagunen interesak defendatzea eta udalaren eta herritarren artean komunikazio kanal zuzen bat sortzea da helburua. "Udalarenganako desengainua orokorra da, eta, herritarren laguntzagaz, herrian dauden arazoak ezagutu gura ditugu", dio Alvarok. Asteon informazioa banatu dute herrian. Abenduaren 2an, 3an eta 4an ere ipiniko dute mahaia, 17:00etatik 19:00etara.

40 bizilagunek N-634 errepidea moztu dute "saturazioaren" aurkako protestan

Zornotza | San Antonio auzoko 40 bat bizilagunek N-634 errepidea moztu zuten martitzenean, 18:00etan, errepide horretako "saturazioaren" aurkako protestan. "Errepide honek auzotarren arteko elkarbizitza zatitzen du; horrez gainera, saturatuta dago eta bizilagunen bizi kalitatean eragiten du, zaratagatik eta kutsaduragatik", kexatu dira. Datorren hilean ere berriro protestan batzekotan geratu ziren bizilagunak.



Maristetako ikasleek munduan lehiatzen duen Formula auto baterako piezak egingo dituzte

Durango | Bilboko ingenieria eskolako talde batek Formula auto bat diseinatu eta munduko Formula Student txapelketan parte hartzen du urtero. Maristak ikastetxeko ikasleek hainbat urte daramatzate auto

horretarako piezak egiten, eta aurten ere erantzukizun hori izango dute mekanizazio alorreko 20 bat ikaslek. Datorren urteko otsailera bitartean, autoaren esekidurarako eta bolanteko direkzioarako piezak egingo di-

tuzte, hain zuzen ere. Proiektu horretako lagun bi Maristak ikastetxean izan ziren atzo, ikasleei azalpenak emateko. Maristetako ikasleen piezek euren proiektuan duten garrantzia azpimarratu zuten, besteak beste.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

GABONETAKO KANPAMENDUAK ETA GALOPEEN PRESTAKUNTZA

ABENDUAK 23, 24, 26 eta 27
URTARRILAK 2 eta 3

PREZIOAK

Egun solteko: 40€
4 EGUN: 140€
6 EGUN: 200€
(hamaitetako bame)

Zelai Alai
HIPIKA ESKOLA IURRETA

Zelai Alai Hipika Eskola Iurreta Gaztañatza auzoa z/g 48215 Iurreta

Tel: 691 746 611 - hipicazelaialai@gmail.com - www.hipicazelaialai.com



LEKUAN LEKUKO EGUTEGIA


Ohiko saltokietan salgai

ABADIÑO	Petite / Hezgarri / Abarkateruena
ATXONDO	Kiosko Atxondo
BERRIZ	Fonda
DURANGO	Hitz Liburudenda / Arkarazo
ELORRIO	Ilargi
GARAI	Herriko Taberna
IURRETA	Urki
IZURTZA	Herriko Taberna
MALLABIA	Bastida Taberna
MAÑARIA	Bizkarra
OTXANDIO	Danoena Taberna
ZALDIBAR	Imendia
ZORNOTZA	Ayerdi paper-denda




Arrotzak

Ibaietan eta erreketan aurkitu beharko ez genituzkeen elementu gehiegi dago paisaia honetan (gomazko ahatez gainera, gutxienez 16). Ikusten al dituzu?



Irudi engainariak

Hamahiru zati hauetatik zortzi goiko iruditik hartuta daude eta gainerako bostak engainariak dira, hau da, oso antzekoak izan arren, ez datoz bat irudi nagusiarekin. Identifika itzazu.



Pareak bai!

Hemengo elementu gehienak bikoiztuta daude. Batek, ordea, ez du parearik, eta beste bat hiru aldiz ageri da. Zein da bakana eta zein hirukoiztua?





6

www.plazanbazan.eus
Egilea: Garbine Ubeda (Aiorri)




Tatuajea

Maripurtzili ikaragarri gustatzen zaizkio tatuajeak. Hona hemen bere besoa. Eginiezazkiozu tatuajetxo batzuk.

Sartu www.plazanbazan.eus web atarian eta denbora-pasa hauen erantzunekin batera beste hainbat jolas aurkituko dituzu.

Mezua

Iruditxo bakoitza dagokion hizkiaz ordeztu eta esaera zahar bat agertuko zaizu.




Hau da Hau!

Hona hemen Maripurtzilen hatz erakuslea. Marraz ezazu zerbait, bere hatz puntan orekan, eta izan dadila ikusgarria, sekulako trebezia baitaizka.

Itzala

Ikusten duzunez, Pelloziri eskolako lanak egiten ari da eta ez dago pozik. Baina hori alde batera utzita, zein ote da bere itzal zuzena?



Anbotoren lagunak



Oraindik ez zara ANBOTOREN LAGUN?
Izena eman eta parte hartu datorren abenduaren
13ko zozketan!

**Errigorako otzara bi eta Atxarte mendi
dendako 150€ko bonua.**

f Anboto
Komunikabideak @anboto @anbotokomunikabideak

Tel.: 946 816 558 · www.anboto.org · lagunak@anboto.org

ERRIGORA produktuen otzara 2



ATXARTE
Mendiko denda

**150€_{ko}
bonua**



Gaztardogi AZOKA IZURTZA :: Abenduak 6

Dantzariak ere egongo dira

Gaztardogi azokak askotariko produktuez betetako 20 erakustoki batuko ditu Izurtzan, abenduaren 6an. Gazta, ardoa eta ogia

ez ezik, likoreak, barazkiak, ezta, marmeladak, pastelak, pateak eta loreak egongo dira. Eusko Labeldun oilasko pintxoak ere

salduko dituzte eguerdian, eta herriko dantzariak erakustaldia eskainiko dute. Azoka 11:00etatik 15:00etara egongo da zabalik.

Azaroaren 29an

ABADIÑO

euskararen astea

'Euskaraz bizi' postal eta argazki lehiaketako erakusketa eta sari banaketa, 19:00etan, Errota kultur etxean.
'Margolaria' filma, 20:00etan. Gero, solasaldi musikatua Oier Aranzabal eta Mikel Urdangarinengaz.

ABADIÑO ipuinak

'La domadora de sueños (Virginia Imaz), 19:00etan, Txanporta kultur etxean. Helduentzako saioa.

BERRIZ musika

Barry White Grone Wrong, 22:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

ELORRIO

euskararen eguna

'Ghero. Azken euskalduna' (Tartean Teatro), 20:30ean, Arriola antzokian.

IURRETA ipuinak

'Inguru minguru. Naturarekin bat' (Ana Apika+Intxixu Valvuena), 18:00etan, Ibarretxe kultur etxean. 3-4 urteko umeentzat, lagunduta.

IURRETA ipuinak

'Cuando te hablen de amor' (Martha Escudero-Mexiko), 19:00etan, Ibarretxe kultur etxean. Helduentzako saioa.

ZORNOTZA antzerkia

'La Zanja' (Titzina Teatro). 20:15ean, Zornotza aretoan.

Azaroaren 30ean

ABADIÑO

euskararen astea

'Merinaldearen batzarra' 16:30ean, Salbadore ermitan. Institutuko ikasleek antzeztuta. Gero, pastak.
'Murren bidaia', 19:00etan, Errota kultur etxean.

ABADIÑO musika

Organo kontzertua: Gabriel Marghieri, 19:30ean, San Trokaz elizan.

BERRIZ euskararen astea

Ene Kantak, 16:30ean eta 18:30ean, Kultur Etxean.

ELORRIO dokumentala

'Erroa eta geroa', 18:30ean, Arriolan. Egileekin solasaldia.

ELORRIO

euskararen eguna

'Ez da kasualitatea' bertso musikatuak, 19:30ean, Gaztetxean. Uxue Alberdi, Maider Arregi, Maialen Akizu eta Nerea Elustondo bertsolariei Aissa Intxaustik ipiniko dizkie gaiak; Gari Otamendik eta Itziar Etxegiak musika.

Abenduaren 1ean

ABADIÑO

euskararen astea

'Tripaki saltsa-Oilo Ama-Boxers' (Pez Limbo), 11:00etan, San Trokazeko elizpean. Probalekuan, **Maleta Siku + Bingo musikala**, 14:30ean. **Herri kirolak**, 17:30ean. **Txokolatea eta bizkotxoak**, institutuko ikasbidaiarako.

BERRIZ euskararen astea

Bertsotrama: Miren Amuriza, Andoni Egaña eta Amets Arzallus. Gai jartzailea: Maite Berriozabal, 12:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO antzerkia

'Izar' (Marie de Jongh), 18:00etan, San Agustin kulturgunean.

ELORRIO

euskararen eguna

'Urratsak euskaraz kompleju barik' IV. Korrikaldia. 12:00etan, plazan hasita.

Abenduaren 2an

BERRIZ euskararen astea

'Oizko errotari harrobiak' (Javier Castro) liburuaren aurkezpena, 19:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO

euskararen astea

'TABERNARIA. Instrukzioak botatzeko ondo bat kaña' (Tartean Teatro), 19:30ean, Plateruenan.

Abenduaren 3an

ABADIÑO

euskararen astea

Bertsolariak, 16:45ean, Matienako frontoian: Abadiñoko BHIko Bat-bateko taldea. **'Totoro basoa eta jolasak'**, 17:00etatik 19:00etara. Gero, **txokolatea**.

Izar
Marie de Jongh 8 (Bilbao)
Abenduak 1, 18:00etan

Erritu
Kukai Dantza Taldea
Abenduak 5, 19:00etan

Mikropiezak
Antzerki eta dantza pieza laburrak
Abenduak 7 eta 8, Egun osoan

San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

Sanagustinalde, 12 · Tel.: 946 030 021 · sanagustin@durango.eus

Zinema

:: Berriz KULTUR ETXEA

• **Elcano eta Magallanes** barikua 29: 18:15

:: Durango ZUGAZA

• **Puñales por la espalda**
barikua 29: 19:30/22:00
zapateria 30: 19:30/22:30
domeka 1: 19:15/21:30
astelehena 2: 18:30/21:00
martitzena 3: 20:00
eguzartena 4: 20:00

• **Last Christmas**
barikua 29: 19:30/22:00
zapateria 30: 17:30/19:30/22:30
domeka 1: 17:00/19:15/21:30
astelehena 2: 18:30/21:00
martitzena 3: 20:00
eguzartena 4: 20:00

• **Le Mans 66**
barikua 29: 21:30
zapateria 30: 22:30
domeka 1: 20:30
astelehena 2: 18:30
martitzena 3: 20:00
eguzartena 4: 20:00

• **Frozen 2**
barikua 16: 19:30
zapateria 17: 16:30/17:30/19:00
domeka 18: 16:30/17:00/18:30

:: Elorrio ARRIOLA

• **The Farewell**
zapateria 30: 22:00
domeka 1: 20:00
astelehena 2: 20:00
• **Mr Link: jatorri galdia**
domeka 1: 17:00

:: Zornotza ARETOA

• **Si yo fuera rico**
zapateria 30: 22:00
domeka 1: 20:00
astelehena 2: 20:15
• **La familia Adams**
zapateria 30: 17:00
domeka 1: 17:00
• **Trinta Lumes**
martitzena 3: 20:15

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi **agenda@anboto.org** helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguzten eguerdia baino lehen.



Estetika gida

anboto

Ile-apaindegia

NUKLEO
ileapaindegia

946 582 996
Nizeto Urkizu, 14 behea
ELORRIO

Ile-apaindegia

IUNIK
ILEAPAINDEGIA

Antso Estegiz, 1
DURANGO
Tel.: 946 216 491

Belardenda eta dietetika

OSASYN - ETXEA

BELAR-DENDA eta DIETETIKA

PISUA GALDU NAHI DUZU?

NAHI BADUZU, AHAL DUZU!

Aukeratu zure kolorea, eta pisua galtzen eta zure borondatea lantzen lagunduko dizugu
Hartu hitzordua Abenduaren 2an (astelehena)
konpromezurik gabe

2-5 kilo 6-10 kilo 11-15 kilo 16 kilo edo gehiago

NOVALINE METODOA

Eskatu bisita doan informatzeko

Ermodo kalea, 13 (Madalena galeriak) - DURANGO
Tel.: 688 730 694-osasunetxea@hotmail.com
f Herboristeria Osasun Etxea

Ile-apaindegia



Salón de belleza

M^a Jesús Luque

UNISEX ILE-APAINDEGIA

✉ Kurutziaga kalea, 9 - DURANGO

☎ 946 81 43 89



Iunik
Jon Sopelana

Buruazalak eta ileak behar bereziak izaten dituzte udazkenean. Ilea sikatzea, azalean poroak sortzea eta bitamina falta izatea ohiko ezaugarriak dira sasoi honetan. Horri aurre egiteko, bakoitzaren egoera aztertu eta diagnostikoa egiteko zerbitzua eskaintzen dugu IUNIKen. Horregaz, ile eta estetika osasuntsuago bat izateko aholkuak ematen ditugu.

Orain arte egindako bideak erakutsi digu erabiltzen ditugun koloreek emaitza bikainak ematen dituztela. Izan ere, tonu oso naturalak lortzen ditugu erabiltzen ditugun koloreekin. Kontzeptu honek ideia kontraesankorra dirudien arren, emaitza hori betiko kolore kimikoetatik

irtenda eta teknikak aldatuta lortzen dugu. Buztina eta kolorearen kultura deritzona erabiltzen ditugu gure tratamenduetan, ileak naturaltasunik handiena hartu dezan.

Handiak dira ilearen izaera naturala mantentzeak dituen onurak: bizirik dago, distira du, etxean orrazteko errazagoa da, koloreen indarra luzaroan mantendu eta azkurarik ez da sumatzen buruazalean.

Esentzia pertsonalagaz konektatu eta indarra bilatzea. Sorkuntza horretatik jaiotzen da naturaltasunaren eta elegantziaren arteko oreka.

Ebakitzeko lerroek ilea egituratzen dute, mugimendua eta bolumena emanaz. Aldi berean, horrek kolorearen teknikak leuntzen ditu. Tonalitateak eta formak pertsona bakoitzaren izaeragaz bat datoz, bere ametsak askatzeko.

Kontsulta egitea debalde da; atea zabalik ditugu.



Profesionalik onenak zure zerbitzura!





“Gure inguruko taldeen eragina nabarmena da gugan: Elorrioko taldeak, Arkada Social, Never Surrender...”

Pentsatzen dutena musikaren bitartez transmititzeko gogoak bultzatuta sortu zuten Estutu Elorrioko bost gaztek; hainbat kontzertu eskaini dituzte hile hauetan

MUSIKA • IGOR GALARZA

Elorriok punk, rock eta oi doinuak uztartzen dituzten taldeen harrobia izaten jarraitzen du. Aimar Sainz de Bikuña (ahotsa), Andoni Orbegozo (baxua), Andu Moreno (gitarra), Jon Agirrebeitia (gitarra) eta Mario Cruz (bateria) gazteek Estutu taldea sortu dute, eta euren lehenengo lana izango denaren grabaketa fasean murgilduta daude orain. Hala ere, "ahal duten heinean" kontzertuak eskaintzen jarraitu gura dute. Barikuan, kontzertua eskainiko dute Zaldibarko gaztetxean, Cuero Negro eta Selektah Stepi taldeekin batera.

Zelan sortu zenuten taldea?

Musika eskolara joan ginen bostok; Mario eta Aimar zeharkako txirula

jotzen hasi ziren, Andu eta Jon gitarra espainola, eta Andoni akordeoia. Hamabost urteagaz, talde bat sortzeko gogoia sartu zitzaigun eta lokalera joaten hasi ginen. Mario bateria jotzen ikasten hasi zen, eta Aimar, abesteaz gainera, baxua jotzen hasi zen; horrek irteera asko ez zeukala ikusita, Andoni batzea izan zen proposamena, baxua jotzeko. Bertsoak jotzen hasi ginen.

“

Hainbat taldegaz jo dugu, eta denen partetik jaso dugu animoa aurrera jarraitzeko”

■

Zerk mugiarazi zintuzteten batzera?

Hasieran, gure asmoa bertso batzuk jo eta ondo pasatzea zen. Horrez gainera, pentsatzen genuena musikaren bitartez transmititu gura genuen, momentu horretan entzuten genituen taldeen ildoari jarraituta. Beste alde batetik, talde horien bertsoak jotzeak, kontzertuak jotzeak eta gure kantak sortzeak motibatu egiten gintuen.

Zein hartu-eman zenuten taldea sortu aurretik?

Taldeko hiru partaidek txikitxikitatik ezagutzen dugu elkar, gure gurasoak lagunak direlako. Jon eskolako kidea zen, eta kuadrillan beti ibili gara batera. Andoni Abadiñon bizi zen, 12 urtera arte, eta Elorriora etortzean kuadrillara batu zen.

Punk Oi talde bat zarete. Zergatik?

Bostoi musika estilo desberdinak gustatu arren, gure artean gehien nabarmen den estiloa delako gara punk oi talde bat. Hala ere, gure estiloa ez da punk oi musikara mugatzen, punk rocka ere tartekatzen dugu.

Baduzue erreferenterik?

Egia esan, ez dugu erreferente argi bat talde lez. Bakoitzak musika estilo desberdinak entzuten ditu, eta erreferente pertsonalak ditu. Esaterako, Non Servium eta Rude Pride talde ezagunak entzun izan ditugu, beharbada ez hainbeste La Polla, Eskorbuto, RIP eta horrelako talde mitikoak.

Gure inguruko taldeen eragina ere nabarmena da gugan, Elorrioko taldeak, Arkada Social, Never Surrender, Fridays Crew Apunta, In Your Face, The Sinners, Nealta Folla...

Zer entzuten duzue orain?

Guk jotzen dugun musikaren antzerakoak entzuten ditugun arren, punk oi musikaz haratago ere entzuten dugu: Brigada Criminal, Rancid, Iheskide...

Bakoitzak bere gustu propioak ditu, eta gure taldearen barruan musika estilo nahiko zabala entzuten dela uste dugu, hasi Cock Sparrerren oi doinuarekin eta Slipknoten doinu metaleroagoetara.

Grabaketa lanekin hasi zarete.

Oraingoz, hainbat kanta dauzkagu, zortzi edo bederatzi inguru, eta hauek jendeagaz konpartitu ahal izateko grabatzen hasi gara. Lan hau ezin dugunez guk bakarrik egin, gaztetxeko lagun bat, Karra [Selektah 9mm], guri laguntzen dabil grabaketagaz. Apurka gabilta lan hori egiten, grabaketak bere denbora behar duelako, eta gauzak

“

Gure inguruan begiratzea baino ez dago; gazte asko ari dira instrumentuak hartzen”

■

ondo egitea gura dugulako. Materiala eskuratzea ere ez da lan erraza izaten, eta gaztetxetik eskaini dituden laguntza eskertu gura dugu. Ea hemendik lasterrera jendeagaz konpartitu dezakegun dena.

Oso gazteak zarete. Zer esaten dizute beste taldeetakoek oholta eurekin partekatzean?

Gure inguruan begiratzea baino ez dago; geroago eta gazte gehiago ari dira instrumentuak hartzen eta punk oi musika egiten. Hainbat taldegaz jo dugu, eta denen partetik jaso dugu animoa. Aurrera jarraitzeko esaten digute, eta materiala ere eskaini digute.

Asteburuan Zaldibarren joko duzue. Gogotsu zaudete?

Bai, noski! Gogo itzela dugu, eta eskertzekoa da gaztetxeak eman digun aukera. Hurrengo egunean Beasainen jo behar dugu, baina, hala ere, dena emango dugu Zaldibarko kontzertuan. Hainbat kontzertu eskaini ditugu jada. Besteak beste, ekainaren 1ean, Brigade Loco eta Alerta Gorriagaz batera, RSFk antolatuta. Anbotopen, Elorrioko gaztetxean eta beste leku batzuetan ere jo dugu. Hainbat eragileren lana eta esfortzua eskertu gura dugu.

Hemendik aurrera, zer?

Lehenengo, grabaketa bideratu gura dugu. Baina, hala ere, kontzertuak jotzeari utzi behar ez izatea itxaroten dugu. Dena dela, egin beharrekoa egingo dugu, kantak ahalik eta arinen kaleratu ahal izateko.

2018an Espainiako Arte Eszenikoen eta Feten sariak jasotako 'Izar' antzezlanaren taularatuko dute Durangon

Marie de Jongh konpainia haur eta gazteentzako atalean saritu zuten Espainiako Arte Eszenikoen sarietan; Feten sari entzutetsuetan ere garaikurra irabazi zuen; abenduaren 1ean, domekan, taularatuko dute 'Izar', 18:00etan, San Agustinen

ANTZERKIA • A.M.

Izar da antzerki obra honetako protagonista. Sei urteko neskatila da, pianista handia bihurtzeko bidean dagoen gaztetxo. Gurasoek ezarritako diziplina zorrotzaren ondorioz, labirinto emozional batean murgilduko da. "Izarrek ez du hazi nahi, pozarren bizi da bere haurtzaro distiratsuan. Baina bizitzak, gorabehera eta ezusteko bihurrien bitartez, bestelako patua ekarri

Hamar urteko ibilbidea du Marie de Jongh konpainiak, eta nortasun propioa garatu du

dio, uste gabeko labirinto emozionala. Handik ateratzeko, beste izar baten gidaritzan beharko du, ez edo zelango izar batena, itsas-izar batena baino", diote konpainiak.

Izar, konpainiaren gainerako obrak lez, Jokin Oregik sortua da;

zuzendari lanak ere Oregik berak egin ditu. Epe honetan, konpainiak nortasun propioa garatu du bere lanetarako. Antzezle lanetan Anduriña Zurutuza, Javier Renobales, Ana Meabe eta Ana Martinez

egongo dira, eta musika arloaz Iñaki Salvador musikari ezaguna arduratuko da.

Hamar urteko ibilbidea
Hamarkadako ibilbidea du Marie

de Jongh konpainiak, eta hainbat sari jaso ditu. Izar ikuskizunak, Espainiako Arte Eszenikoen sariak eta Feten sariak gainera, Territorio Violeta festivalaren saria ere jaso zuen, 2018an.



'Izar.'

Sei bikote gipuzkoarren artean jokatu da berriro ere trikitilari gazteen txapelketa

Abenduaren 1ean izango da finala; Euskal Herriko txapelketa honek XXVIII. edizioa du



Olazar pilotalekuan izango da finala.

MUSIKA • A.M.

Azkenaldiko joerari jarraituta, Euskal Herriko trikitilari gazteen finala bikote gipuzkoarren artean jokatu da. Zaldibarren egiten den txapelketa honek XXVIII. edizioa du aurtengoa. Abenduaren 1ean izango da finala, San Andres jaiekin batera. Bertan, Irati Arcelus-Mirari Plazaola, Aritz Etxaniz-Enaitz Alberdi, Julen Labaka-Garazi Larrañaga, Ianire Seguro-la-Elaia Diaz, Eider Garro-Aritz Elizalde eta Ane Etxezarreta-Sara Iriarte bikoteek joko dute. Azken horiek dira iazko txapelkunak, Etxezarreta eta Iriarte, eta txapela defendatzen igoko dira oholtzara. Zaldibarko Olazar pilotalekuan izango da finala, eta 17:30ean hasiko da.

Gai librea

Ritxi Blanco Aguilera
Ikerlaria



Apologiak (I): Metamusika

Begiak itxi, arnasa hartu, aditu. Berriz ere entzun, hausnartu, begiak ireki. Presarik ez da instanteak eternalak badira. Zer da maitasuna? Ez dago erantzun koherenterik gure egitura prefabrikatuetan, soilik grabitaterik gabeko ziurtasun erlatiboak.

Musika ez da ezer isolatuta badago. Bere izatea frekuentzia fisikoetatik haratago kokatzen da, eta hori da maitemintzen gaituena: bere helburua, bere kontzientzia, bere forma, bere tokia mundu abstraktu honetan. Hortaz, metamusika, musikatik jaio eta musikan urtu egiten da erdigunetik periferiarako bidean. Musika erroan dagoela, bere existentzia haratago sortzen dira mezua, estetika eta izaera. Edukia forma bereganatu, eta osotasun koherente eta orekatua bihurtzen da.

Beste aldetik, kontrako norabidean doan prozesu antagonikoa ere badago; lehenengo mezua, estetika eta izaera diseinatu, eta periferiatik erdigunetarako bidean, azkeneko lekuan musika kokatzen duena alegia. Orain, musikaz haratago dagoena eraikitzea da lehentasuna: nola saldu, nola jantzi, nola doktrinatu eta ostean, muntaia-katearen amaieran, helburu horiek betetzeko beharrezkoak diren doinuak ondu egiten dira. Horrela, gehiegizko kontraesanekin erditzen da musika: benetako mezurik gabe, benetako estetkarik gabe, benetako izaerarik gabe, itxuraz dituen horiek guztiak kanpotik inposatuak izan direlako. Formak musika irentsi eta edukiz hustu egin du.

Argi dago zein eredu den nagusi baina, gutxienez, kontsolamendua badago: benetako (meta)musika ez da inoiz ustelduko.

DIBA

K O O P E R A T I B A

Durangaldeko
Baserritarren
Elkartea

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

hitz artekalea 23, durango
946 810 776
liburudenda info@hitzliburudenda.com

#salduenak

<p>BASA Miren Amuriza (Elkar)</p>	<p>ETXEAK ETA HILOBIAK Bernardo Atxaga (Pamiela)</p>	<p>ZELDAK - GORPUTZ HONETATIK Elena Olave (Balea Zuria)</p>
--	---	--

PILOTA • JOSEBA DERTEANO

Master Cup txapelketan, Ainhoa Ruiz de Infantek (Otxandio, 2001) Promozio Mailako finala jokatu du. Non eta Otxandion, bere jaioterrian, eta zaleen aurrean izango da, bihar arratsaldean.

Finala etxean jokatzera "berezia" dela dio. "Jakin nuenean, urduri ipiniko nintzela izan zen nire lehenengo pentsamendua. Baina, gerora, asimilatzen joan naizen heinean, pentsatu dut nire ingurukoak han egongo direla. Esaterako, amona Marina Berrostegieta, eta oso pilotazalea den Floren Urigoitia osaba. Irabazi zein galdu, frontoian ikusiko naute", adierazi du.

Zapatuan izango da jaialdia, 18:00etan, eta Amaia Jaka ihabarra (Arakil, Nafarroa Garaia) izango du aurkari. Ez daki askorik hari buruz, lehenengo txapelketa duelako. Aurkaria aztertzeke, finalerdietan ikusi zuena hartzen du erreferentzia lez. "Oso pilotari teknikoak da, tantoa amaitzen abila. Baina, kolpe

Eskuetatik justu heldu da finalera eta finalerdietan moduan ohi baino tako gehiago jarriko du

aldetik, neu naiz gehiago. Beraz, gutxi entregatzen eta pilota ahalik eta gehien astintzen ahaleginduko naiz", azaldu du Ruiz de Infantek.

Otxandiar gaztea eskutik justu samar helduko da finalera. Finalerdietan tako dezentegaz jokatu behar izan zuen. "Partidu hartako tako berdinekin jokatu du. Or-

Ainhoa Ruiz de Infantek Master Cup-eko finala jokatu du zapatuan Otxandion, bere jaioterrian

Finalerdi ikusgarria irabazi eta gero heldu da finalera; Amaia Jaka izango du aurkari, pilotari teknikoak eta abila



Master Cup-eko binakako txapelketan finalerdietara heldu zen urte hasieran.

duan behintzat, mina ez zitzaidan areagotu. Eskua ez dut erabat osatuta izango finalerako, baina ikusiko dugu zelan doan", azaldu du.

Finalerako bidean ez du orbanik. Jokatutako partidu guztiak irabazi ditu. Garaipen guztien artean, joan zen asteburuan eskuratu zuena na-

barmendu daiteke. Finalerdi batek merezi dituen osagai guztiak izan zituen: tanto on asko eta emozioa azken pilotakadara arte. Ruiz de

Infantek eta Gentzane Aldai oro-zkoarrak txapelketako ikuskizunik onenetarikoak eskaini zuten Mañariko pilotalekuan.

Aldai aurkari indartsuak kanporatuta heldu zen finalerdia. Ruiz de Infantek, ostera, bazituen dudak, batez ere eskuengatik. "Mentalki ni baino hobeto heldu zela esango nuke", baloratu du. Partiduaren lehenengo zatian oro-zkoarra nagusitu zen. Ruiz de Infantek ezin zuen bererik eman.

Gentzane Aldairi irabazi zion finalerdia txapelketako partidurik onenetarikoak izan zen

"Takoengatik ez nuen pilota ondo jotzen. Indarra ematen nion, baina kontrolik barik", gogoratu du. 7-12 zihon galtzen, eta zerbait aldatu beharra zegoen. Orduetik aurrera, kontrarioa mugiarazten eta gutxi galtzen ahalegindu zen, eta estrategiak fruituak eman zizkion. Partidua berdindu, eta aurretik ipini zen markagailuan (17-14). Baina Aldai ere ez zegoen amore emateko eta 17na berdindu zuen. Azken tantoan erabaki zen finalista. 18-17 irabazi zuen Ruiz de Infantek.

Emaitzek Ohorezko Mailara igotzeko hautagai lez kokatu dute Abadiño

Talde igo berri bati suposatzen zaion mailatik oso gora dabil Abadiño; Maila Gorenean ez du oraindino partidurik galdu, lider dago eta Ohorezko Mailarako igoserak ez dirudi ametsa

FUTBOLA • J.D.

Hiru urte Lehenengo Erregionalean eman eta gero, Abadiño futbol taldea Maila Gorenera itzuli zen iaz. Batek baino gehiagok pentsatuko zuen aurten mailari eusteagaz nahikoa izango zuela,

baina kontrakoa gertatzen dabil. Ligako herena joan denean, Abadiño Maila Goreneko lider dago. Orain arte, hamar partidutik sei irabazi eta hiru berdindu ditu, eta bakarrik galdu du. Zapatuan, 16:00etan, Trapagaran taldeak

bisitatuko du Zelaieta, eta abadiñarrak bolada onari jarraipena ematen saiatuko dira. Azpimarratzeko da Abadiño B ere lider dagoela Hirugarren Erregionalean, orain arteko zortzi partidurak irabazita.



Hamar partidutan, Abadiñoek zazpi gol baino ez ditu jaso.

Amorebieta futbol klubeko kamisetak Kenyara heldu dira

Gobernuz Kanpoko Erakunde baten bitartez bidali dituzte

FUTBOLA • J.D.

Amorebieta futbol klubeko kamisetak Kenyako Mombasa herrira heldu dira. Voluntarios en Kenia Gobernuz Kanpoko Erakundeagaz han lanean dabilzan Sara Estebez eta Ane Ceba zornotzarrek eramane dituzte bertara hango

gaztetxoentzat. Voluntarios en Kenia erakundearen helburu nagusiak Mombasan babesik barik dauden gazteei laguntzea, hango umezurtz-etxe bat azpiegiturekin hornitzea eta, orokorrean, Kenyako beharrezkoen buruz gizartearen kontzientziatzea dira.



Voluntarios en Kenia erakundearen kideak eta Mombasako umeak kamiseta urdinekin.

Abadiñoako ziklo-kros probak goi mailako txirrindulariak hartuko ditu zapatuan Muntzaratzeko zirkuitu berria

Orain arte Zelaietako landetan lehiatzen zen Abadiñoako Udala ziklo-kros proba, baina aurten Muntzaratzeko landetan jokatu da



Amaia Lartitegi iazko ziklo-kros proban.

TXIRRINDULARITZA • M. ZUAZUBISKAR

Zapatuan Abadiñoako ziklo-kros sariaren seigarren edizioa jokatu da, C2 mailako nazioarteko lasterketa. Aurten txirrindulariek zirkuitu berri bat aurkituko dute. Orain arte Zelaietako landetan lehiatzen zen proba, eta oraingoan Muntzaratzeko landetan jokatu da. "Orain artekoagaz alderatuta, oso zirkuitu desberdina izango da. Hobekuntza asko ditu eta Belgikako zirkuituen antz handia du. Txirrindulari indartsuentzat zirkuitu egokia izango da, zuzengune luzeak daude eta", adierazi du Joseba Gorostiza Abadiño Muntzaratz Txirrindulari elkarteak. Zirkuituak 1.950 metro ditu eta arrapala bat egongo da. "Arrapala bihurtzeko baten ostean dago eta erabakigarria izan daiteke", esan du Gorostizak.

Parte-hartze zabala

Txirrindulariei dagokienez, parte-hartze zabala egotea itxaroten da. Guztira, 350 bat txirrindulari izango dira. 9:00etan hasiko dira, gazte mailako lasterketekin; 11:00etan emakumezkoen txanda izango da, eta 12:00etan elite eta 23 urtez azpiko gizonezkoena. Ondoren, masterrak arituko dira. Emakumezkoetan, Lucia Gonzalez eta Aida Nuño asturiarrak dira favorito nagusi. Gizonezkoetan, Ismael Esteban, Kevin Suarez eta Aitor Hernandez. Baita Jon Munitxa abadiñarra ere. "Azkenaldian oso maila onean dabil, eta berarentzat zirkuitu egokia izan daiteke", esan du Gorostizak.

Mikel Garaizabal alkateak herri-tarrei bertaratzeko deia egin die, eta antolatzaileei eskerrak eman dizkie.

Jokaldia

Unai Zamalloa
Zubiaurre
Saskibaloia



TALDEA ala taldea

Lerro hauek idazten hasi aurretik, aurreko idatziak errepasatzen ibili naiz, eta bertan konturatu naiz nire lehenengo kolaborazioa 2009ko urtarrilaren 13an argitaratu zela ANBOTOn. Hau da, ia 10 urte. Lehenengo eta behin, poza sentitu dut, eta ohore bat dela niretzat aukera hau izatea. Eskerrik asko!

Lehenengo idatziaren titulu bera erabiliko dut gaur ere, baina beste ikuspuntu batetik jorratuta.

Durango betidanik izan dugu TALDEA abiapuntu garrantzitsu moduan. Tabirakoren inguruan asko hasi eta hazi ginen. Saskibaloiak Durango zuen eta duen indarra eta parte-hartzea nabarmenak dira, baina azken urteetan aldaketak burutzen ari dira. Mutilen taldeak murriztu egin dira, ez bakarrik federatu mailan, baita Eskola Kirolean ere. Momentu honetan, saskibaloiak ez du lehen beste erakartzen. Gure talde nagusia EBA mailan partidu guztiak borrokatzen ibilita ere ez! Zer dala eta?

TALDEA, Tabirako eta eskolen artean, taldea bihurtu da eta egoera horri buelta emateko, ez da bide bera burutzen. Kiro-lariak, orokorren, orain 10 urte baino gehiago dira, eta betiko beste kirolek (futbolak batez ere) asko bereganatzen ditu. Gure TALDEA, bitartean, talde bihurtzen doa. Ia epe ertainera begiraturaz TALDEA berreskuratzen dugun. Horretarako, hausnarketa eta lan bereziak beharko dira gure kirolaren oinarriak babestu eta indarberritzeko.

Bitartean, gogoratu dezagun talde nagusiak oso ondo dabil-tzala. Mutilak EBA mailan 3 garaipenekin sailkapenaren erditik gora, eta neskak, jokalarik gazte askorekin, goiko postuetan borrokan.

Asteko kirolaria

"Niri gustatzen zaidan moduko zirkuitua aurkitu nuen Garain; tekniko eta gogorra"

Renault Gaurisa taldeko gaztea Bizkaiko txapeldun geratu da Kadete Mailan

Garaiko ziklo-kros proba emankorra izan zen eskualdeko ziklistentzat. Bizkaiko txapeldun geratu ziren Jon Munitxa nagusietan, Aitzol Sasieta juniorretan, Naia Arregi nesken kadeteetan eta Oinatz Farello mutilen kadeteetan. Farellok bere estreinako urtean lortu du txapela janztea.

Zelan joan zen lasterketa?

Hauxe dut nire lehenengo urtea ziklo-krosean, eta ez nekien ondo zer itxaron. Egia esanda, oso ondo joan zen. Zirkuitua gogoko nuen. Niri gustatzen zaidan moduko ibilbidea aurkitu nuen. Alde batetik, tekniko zen eta ondo mol-datzen naiz halakoetan. Bestetik,

egun euritsua izan zen eta bidea erabat lupeztuta zegoen. Zirkuitu gogorra zen eta horrelakoak gustatzen zaizkit. Nire mailan dabilzan beste ziklistak erregularrak dira, zirkuitu mota guztietan nahiko antzera ibiltzen dira. Ni Garaikoaren moduko zirkuitu eta baldintzetan nabil ondoen.

Itxaroten zenuen txapeldun gertatzea?

Borrokan ibiltzea itxaroten nuen, baina irabaztea... Sekula ez da jakiten lasterketa bat zelan joango den. Gauza asko gertatu daitezke.

Zelan doa ziklo-kros denboraldia?

Nahiko ondo. Aurreneko tokietan ibili naiz eta denetan errendimendu antzerakoa eman dut. Hau da,

ez dut lasterketa txar-txarrik izan. Beraz pozik nago orain arteko lanagaz.

Errepidean laster hasiko duzu denboraldia. Zein izango da egutegia?

Bizkaiko eta Euskadiko txapelketak lehiatuko ditut, bestek beste, eta mendi-bizikletako pare bat probatan aritzea ere gura nuke.

Mendi bizikletan ibiltzea ere gogoko duzu?

Bai, betidanik nabil mendi bizikletan, eta gustatzen zait. Horregatik, aukerarik badut behintzat, pare bat probatan parte hartzen ahaleginduko naiz.

Zein da ziklo-krosaren eta errepidearen artean igarri duzun alderik handiena?



OINATZ
FARELO SARASUA
Abadiño, 2005

Ziklo-krosa esplosiboagoa da. Lehenengo minututik eman behar duzu dena. Hasi eta amaitu, topera. Errepidean gehiago erregulatu daiteke. Alde horretatik, ziklo-krosa oso modalitate exigentea da.

Zeintzuk dira zure erreferenteak txirrindularitzan?

Euskal Herrian, Jon Munitxa da bat. Gainera, bera ere abadiñarra da. Munduan, Mathieu Van der Poel belgikarra esango dut. Maila handiko txirrindularia da, gaur egun dagoen onenatarikoa.



Baserritarren eta Euskal Herriko basoen zerbitzura

Etxebarrieta auzoa - 48215 Iurreta
Tel.: 946 205 187 - Faxe: 946 205 194



IURRETA *Tellitu-n*

3 logelatako 6 etxebizitza

2 logelatako 11 etxebizitza

Garajea eta trastelekua barne

ZARATE  **ELEXPE**
E R A G I L E A K

Kontsultatu beste aukerak

Tel.: 946 816 673
www.zarateyelexpe.com



Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean

HIGIEZINAK
TEKNOLOGIA
LANA/NEGOZIOAK
DENETARIK
IBILGAILUAK
HARREMANAK
AISIA/KIROLA
FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzako. Erregistratu www.anboto.iragakilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio) edo bidali mezua: anboto@anboto.org helbidera. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23 telefono zenbakira.

Paperean, ordainduta: Enpresentzako. Iragarki laburretatik bereiztua eta lauki batean nabarmenduak. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak ETXEBIZITZAK

ETXEBIZITZAK EROSI

ETXEBIZITZAK ERRENTAN EMAN

Elorrio. Atiko polita alokatzen da Elorrioren...50 m2...igogailua dauka. Tel.: 631 12 31 06

ETXEBIZITZAK ERRENTAN HARTU

Abadiño. Pisua hartuko nuke alokairuan Abadiñon. Tel.: 699 17 40 23

Durango. Bi gazte langile alokatzeko pisu bila gabiltza Durangon. Baditugu altzariak, beraz, nahiago dugu etxea erdi hutsik egotea. 11 urteko eta 5 kiloko txakur eme txiki bat daukagu, etxean egotera ohituta dagoena. Tel.: 615 78 10 68.

OPORRETAKO ETXEBIZITZAK PISUA KONPARTITU

PISUKIDE BILA

Atxondo. Arrazolan (Atxondo) baserri batean bizi garen 3 neska feminista etxea partekatzen

persona baten bila gabiltza. Tel.: 650 90 14 91

Lana Formakuntza

LAN ESKARIAK

PERTSONAK ZAINDU

Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Emakume arduratsu eta esperientzia handiduna lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen, gauzei zain egunez. Gainera, berehala lanean hasteko prest nago. Tel.: 646 35 87 09

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Mutil nikaraguar esperientziaduna lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan lan egiteko prest. Interesa baduzu deitu Tel.: 612 53 93 89

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Emakume nikaraguar esperientziaduna lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan lan egiteko prest. Interesa baduzu, deitu Tel.: 632 35 60 66

Nagusiak zaintzeko. Ni Maite naiz, San Fauston bizi naz Durango.

Esperientzia daukat nagusiak zaintzen eta sukalde lanetan. Goizez zein arratsaldean lan egin dezaket. 3 urtean egin dut lan zahar egoitza batean eta esperientzia daukat. Titulua ere badaukat. Tel.: 673 68 97 69

Haurrak zaindu. Arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. Etxeko lanekin laguntzeko arazorik gabe. Urteetako esperientzia. Deitu lasai! Tel.: 688 64 06 04

IRAKASKUNTZA

Klase Partikularrak Natur Zientzietan. DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko ikasleei klase partikular pertsonalizatuak emateko prest nago. Biologia Gradua eta DBH eta Batxilergoan irakasle izateko Masterduna, ingeles C1 maila. Ikasleak, ikasketak teknikan, edozein zientziatiko eta matematikako irakasgaiekin lagun ditzaket. Durango eta inguruetan lan egingo nuke. Kontaktuan jartzeko: deitu edo WhatsAppa idatzi Tel:

688645983 telefono zenbakira.

LAN ESKAINTZAK

ETXEKO LANAK

Umeak zaindu eta etxeko lanak egin. 59 urteko andra euskalduna umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest (Durangaldea) Urte askotako esperientzia eta erreferentziak. Arantza Tel.: 636 44 82 11

PERTSONAK ZAINDU

Pertsona nagusiak zaintzeko. Neska euskalduna naiz eta esperientzia daukat zaintzaile gisa. Eusko Jaurlaritzaren habilitazioa ere badut. Pertsonak zaintzeko prest nago, etxean, ospitaleetan, edonon... ordu solteak, lanaldi osoa... Tel.: 658 03 08 36

PERTSONA HELDUA ZAINTEKO PERTSONA BEHAR DA.

Ataunen baserri batean pertsona heldu bat zaintzeko lanaldi erdirako pertsona bat behar da, berehala hasteko. Kotxe propioa izatea baldintza ezinbestekoa da.

Tel.: 653 74 49 88

Umeak zaintzeko eta klase partikularrak emateko prest.. 0-12 urte bitarteko umeak zaintzeko edota klase partikularrak emateko prest nagoen 24 urteko neska bat naiz. Haur Hezkuntzako unibertsitate gradua bukatzen ari naiz eta esperientzia handia daukat mundu honetan. Elorrio eta inguruetan lan egiteko prest nago. Interesatuak nirekin kontaktuan jarri Whatsapp bat idatziz edo deituz Tel.: 692 71 66 46 zenbakira.

IRAKASKUNTZA

Portugeseko klase partikularrak. Irakasle portugesa behar da klase partikularrak emateko Durangon. Tel.: 678 29 11 67

Hizkuntzak praktikatzeko berbalagun bila nabil. Ingelesa eta frantsesa ikasten ari naiz, eta antzeko interesa duen Durango inguruko norbaitekin harremanetan jarri nahiko nuke, elkarrekin hitz egiten mintzaira eta ulermena hobetzeko asmoz. Tel.: 617 37 89 33

ASTE HONETAN

54.
DURANGOKO
AZOKA

DOAN

Ttap euskarazko aldizkari digitala, deskargatu astero dohainik zure mugikor edo tabletean.




ttap
Irakurri, ukitu,
ikus, entzun.

Informazio gehiago:
ttap.eus



DESKARGATU
Play Store-n

DESKARGATU
APP Store-n



Botikak

BARIKUA, 29 - 09:00-09:00	09:00-22:00
IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA	ASTELEHENA, 2 - 09:00-09:00
09:00-22:00	CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	09:00-22:00
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
ZAPATUA, 30 - 09:00-09:00	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA	MARTITZENA, 3 - 09:00-09:00
09:00-13:30	MUGICA Andra Maria 9 - DURANGO
NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO	GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA
SAGASTIZABAL Askatasun etorb. 19 - DURANGO	09:00-22:00
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
BAZAN DIAZ Urbarri 5 - DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
BALENCIAGA Ezkurd plaza 8 - DURANGO	EGUAZTENA, 4 - 09:00-09:00
JAIO-ABENDIBAR Errekakale 6. - ELORRIO	DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO
EGUREN, ISABEL Trañabarren 15. - ABADIÑO	GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA
GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA	09:00-22:00
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
09:00-14:00	EGUENA, 5 - 09:00-09:00
IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA	ETXEARRIA Montevideo etorb. 2. - DURANGO
09:00-22:00	GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	09:00-22:00
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
DOMEKA, 01 - 09:00-09:00	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
SAGASTIZABAL Askatasun etorb. 19 - DURANGO	SARASKETA, DIEGO LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA
RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA	

Zorion Agurrak



Dena eskertu gura dizugu. Den-dena. Pertsonatxo zoragarria zara. Aiurrek, amak eta aitak ilargiraino eta buelta maite zaitugu. Zorionak, **Ekhi**.

GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11. DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Zorionak, **Sofia (785. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.



Zorionak, **Aihotz!** Abenduaren 1ean, zure egunean, ondo paseu. Jarraitu alai eta irrifartsu. Asko gure zaittugu.



Zorionak, **June**, handitzen handitzen ari za handitzen... den denok asko maitte zaittugu



Durango **Ekain** Montecelok 14 urte egiten ditu azaroaren 29an. Zorionak eta mosu handi-handi bat familia guztiaren partez!



Zorionak, **Lucia!** Ondo pasa eta gozatu zure eguna. Etxeko guztion partez musu handi bat, eta nahiz eta izeko ez egon, beti zurekin.



Gure mutiko berezia! Zorionak laugarren urtebetetzean eta moxu potolo bat, aitzitxa, amama eta izekon partez, Elorrixotik.



Zorionak gure mutiko kuttunari, amama, aitate eta birramama Natiren partez!

Eguraldia

ZAPATUA 15° / 10° ☁

ASTELEHENA 8° / 4° ☁

EGUAZTENA 6° / 3° ☁

DOMEKA 11° / 8° ☁

MARTITZENA 4° / 4° ☁

EGUENA 7° / 4° ☁

DURANGALDEAN ESTETIKAREKIN,
ZERIKUSIA DUEN **NEGOZIORIK BADUZU,**
JARRI EZAZU ZURE IRAGARKIA ANBOTON
Informazio gehiago **94 621 79 02** telefono zenbakian

"Gure jarraipen bat da Txoria Nuen Maite, gure etxea; gure izaeraren isla, azken finean"

Lauhortza

Martin Loizate
Sarrionandia
Ikaslea



BIHARENSAIO!

"Agurraren emozioa irauarazi nahi genuke, adio erabatekorik sekula esan gabe" idatzi zuen Har-kaitz Canok, agur esaten denetik alde egin arteko parentesi horretan bizitzea. Iruñean egin zuen alde iragan asteburuan herri honetako gazteon zati handi baten soinu bandetako batek, su artifizialik gabe, milaka ikusleren aurrean baina modu soil batean. "Eta bihar ensaio", nola Kobetamendiko eszenatokitik hala zuzendu zitzairen ikusle gazteei Iruñetik. Lema bilakatu den esaldia, gure hizkuntzak entzule (hartzaile) aktiboak behar dituela, eta sortzeko.

Baina "sortzerako salto" hori entzule-hartzailearen erabaki indibidual eta espontaneoak beste baldintzatzen dute berau gauzatzeko bitarteko materialek; esan nahi dut, musika talde bat (edo aldizkari literario bat edo ikus-entzunezko proiektu bat...) sortzeko bulkada espaziorik ezak, ekonomikoki sustengatzeko gabeziek edo sortutako produktuaren zabalkunderako medio faltak. Eta merkatuaren logika nagusitzen da beste behin, baliabide gutxien dituztenak, kanon artistikoetatik ihes egiten dutenak eta batez ere gazteok joko kanpo utziz.

Logika baztertzailer horretatik aldentzeko ahalegin prekario bat dira Sorginola Gaztetxeko proiektuak, Berbaz aldizkariarekin hasi, eta duela gutxi martxan jarri diren antzerkirako 'Gela urdina' eta musika ensaio lokala, su artifizialik gabe, baina geroz eta gazte gehiagoren eskuekin forma hartzen joango direnak. Beste saiakera bat izango da abenduaren 5ean Durangoko Azokan burutuko den "Gazte Sortzaileak Plazara!" mahai-ingurua, Manex Egaña (Brigade Loco-ko batera), Maite Mentxaka (hainbat proiekturen sortzailea), Joanes Illarregi (bertsolaria) eta Eider Perez batuko dituen. Eta bihar bilera, bihar laneguna, bihar ensaio!

Ibon (1969) eta Jon (1967) Petralanda Eskauriatza | Durango

- Txoria Nuen Maite tabernaren jabeak

AKUILUA • AITZIBER BASAURI

Kaiolak apaintzen dute Txoria Nuen Maite taberna, zabalik dauden kaiolak. Askatasunari egindako keinua da hori, Mikel Laboaren kanta gogoratu. Atxo Fun Fun izenagaz hasitako 20 urteko bidea islatuko duen argazki erakusketa prestatu dute Petralanda anaiek. Tabernan lan egindako guztiak gonbidatu dituzte ospakizunera. Gaur, Dj Sonidero Galernak ipiniko du musika, 19:00etan, eta Havana 537 talde kubatarak joko du. Bihar, Dj maratoia hasiko da, 16:00etan. Donostiako Gross Craft Beer-ek propio egindako garagardoa ere aurkeztuko dute.

teko kafea egiteko ikastaroetan parte hartuta. Urte bi dira artisau-garagardoekin lan egiten dugula, beharrerako eta esperimintatzeko gogoia duen jende gazteagaz.

Hor dago aurrera jarraitzeko giltza?

Jon: Gauzei ipintzen diegun gogoan dago giltza. Erakarri egin behar dugu jendea, eta, horretarako, plus bat ematen ahalegintzen gara: gure gogoia. Gustuko dugu egindakoa eta beti gabilza asmatzen, hobetzen.

Ibon: Emandako tratuan, tabernara datozenak gustura sentiaraziz.

Zerk egiten du berezi zuen tabernak?

Jon: Batez ere, guk geuk (barrez).

Ibon: Mundua ikusteko gure erak.

Jon: Gure jarraipen bat da Txoria Nuen Maite, gure etxea. Guk sortu dugu eta egunero dihardugu horretan. Gure izaeraren isla da, azken finean.

Emandako afari eta pintxoetan kanpoko janaria bertakotzen duzue?

Ibon: Bertako eta kanpoko jakiak nahasten ditugu, ukitu berezia ematen ahalegintzen. Adibidez, Ezpeletako piperrekin egindako saltsa eta guakamolea nahastuz.

Jon: Betiko aukerak, klasikoak, ikusten genituen, eta zerbait bereizgarria egiteko aukera genuela. **Koktel aukeragatik zarete ezagunak. Zortzi mojito mota dituzue...**

Jon: Hasieratik izan ditugu Mojitoa, Daikiria eta Piñakolada; eta ikasi ahala karta osatuz joan gara. Iaztik, eguenetan, 'Jan and Jai' egiten dugu, eta koktel berezi bat asmatzen hasi gara, hileroko. Dena dela, Euskal Herrian nahiko klasikoak gara; askori kosta egiten zaie gauza berriak probatzea.

Definitu Txoria Nuen Maite.

Jon: Dena maitasunez egin den toki alternatibo bat.

Ibon: Denak ongietorri diren lekua, inoren askatasuna urratzen ez den bitartean.

Konta daitekeen pasarterik...

Jon: Asko egongo ziren, baina ez naiz batere kuxkuxeroa. Taberna ixteko, bikote bat komunitate atera behar izan genuen. Baten batek tabernaren logoa tatuatu du.

Atzera begiratuta, zelakoa izan da bidea?

Jon: Bide polita eta aberasgarria. Asko ikasi dugu eta lan asko egin dugu. Beti gustura, gustatzen zaiguna egin dugulako, printzipio batzuekin: ez dugu txanpon-makinarik izan, telebista ere ez. 'Normala' deritzon horretatik kanpora egongo zen taberna gura genuen, eta, neurri handian, lortu dugula uste dut.

Atxo Fun Fun berritzailea izan zen, eta Txoria Nuen Maite ere badela esan daiteke. Zelan lortzen da hori?

Ibon: Lan eta lan eginez, egunero. Horregaz batera, gauza berriak asmatu eta antolatuz: jatekoak, koktelak, jaiak... **Jon:** Abestiak dioen lez, ikusiz eta ikasiz. Bateko gastronomia edo koktel azokara joanda, eta bes-



Berba bitan

Koktel bat

Ibon: Pisco Sour

Jon: Mojito kubatarra, azukre eta ron zuriagaz

Abesti bat

Ibon: Kortaturen edozein

Jon: Momentuaren arabera, hainbat abesti ditut

Pintxo bat

Jon: Patata tortillarena

Ibon: Gure 'Ongietorri' pintxoak

Bidaia bat

Jon: Kuba

Ibon: Mexiko

Zaletasun bat

Jon: Dantza

Ibon: Eskulana

Mendia ala hondartza

Biak: Hondartza, bero handirik eta jende askorik barik

